

Aizkora ♦ III. Urrezko Aizkoraren lehen finalerdia jokatuko dute bihar, Zumaian (12:30)

lazko errebantxa parekatua

Peñagarikanok minutu eta 15 segundoko aldea ateratzen Mindegia

Koldo Alduntzin / Donostia


URREZKO AIZKORA mailarik gorenera helduko da bi aste-buruotan, finalerdia jokatu-ko baitira. Biharkoak, Maila Nagusiko bi aizkolariren arte-ko lehia estu izateaz gain, badu bere erakargarritasun propioa, iazkoaren erreban-txa izango baitute Miel Mindegia Ezkurakoak (Nafarroa) eta Joxemiel Peñagarikano Beizamakoak (Gipuzkoa). Aurreko bi kanporaketetan baino bi enbor gehiago ebaki beharko dituzte biek ala biek; hau da hamabi: 45 ontzako lau, kanerdiko bi, 60 ontzako lau eta oinbiko bi.

Zumaia (Gipuzkoa) plaza-jokatuko da norgehiago-ka eguraldi ona bada, eta bestela, Odieta pilotalekuan (ETB, 12:30). Iaz Eibarko Arraten jokatu zuten elkarren kontrako finalerdia, eta orduan Peñagarikanok irabazi zuen minutu eta 15 segundoko aldearekin. Hamar enbor ebaki zituzten: 45 ontzako bi, kanaerdiko bi, 60 ontzako lau eta oinbiko bi. Lan horretan, iazko eta aurtengo denborak kontuan hartuta, Peñagarikanok egin zuen denborarik onena iaz (24'52").


Kontua da biharko lana ez dutela orain arte egin torneo-an, eta pentsatzekoa da hiru bat minutu gehiago beharko dituztela; batezbesteko bat hartuta, 29 minutu. Kanaerdikoak eta oinbikoak Peñagarikanok plazaratuko ditu. Iazko denboraldia amaitu zenez geroztik ez du jendarean jardun Beizamakoak — Usurbilen bizi da —, «ez dut erakusketarik egin, eta etxean eginiko lanarekin agertuko naiz. Horregatik, iaz egin-dakoa eginez gero pozik nengo», esan zigun atzo.

Peña: «Garai honetan sasoiko egon ohi naiz»

Azken urteotan oso dema polita dute bi aizkolariek. Euskal Herriko Txapelketa Nagusia kontuan hartzen badugu, 1995, 96 eta 97an gipuzkoarra gailendu zen, batezbeste minutu eta 20 segundoko aldearekin. Azken bi urteotan, ordea, nafarra gailendu zaio. 1998an minu-

III. Urrezko Aizkoraren egutegia

Mindegia Arrospide kanporatu zueneko saioan.

**Miel Mindegia**

Nongoa: Ezkurra (Nafarroa)
Adina: 51 urte
Pisua: 88 kilo
Altura: 1,75 metro
Maila: Maila Nagusia Euskal Herrikoan eta Nafarroakoan.
Ibilbidea Torneoan: Lehenean ez zuen jardun, iaz Peña kanporatu zuen, finalerdian, eta aurtengoan Nazabal kanporatu du.

**J.M. Peñagarikano**

Nongoa: Beizama (Gipuzkoa)
Adina: 43 urte
Pisua: 88 kilo
Altura: 1,81 metro
Maila: Lehen Mailan Euskal Herrikoan eta Gipuzkoakoan.
Ibilbidea Torneoan: 1998an txapelduna Larretxearen aurka eta 1999an txapeldunordea Olasagastiren kontra galduta. Aurten lehena du.

tuko aldea ateratzen, eta iaz, 3 minutu eta 8 segundokoa. Iazko txapelketaz hau zioen Peña: «lehen enborrak zikinak irten zitzaizkidan; hiru segidan. Gainera, udazkene-ra nekatu samar heltzen naiz, udan lana eta erakustaldiak izaten ditugulako. Udaberrian, aldiz, sasoiko egon ohi naiz».

Donostiako Urrezko Kopa hartzen badugu erreferentziatzat, pare-parean daude. Iaz esate baterako, Peña 25 segundoko aldea ateratzen.

Mindegia: «Ziatikak jota nago»

Bart gaueko hamarretan mintzatu ginen Mindegia-ekin, eta hau adierazi zigun: «Iaz bezalatsu nago, lunbagoak, ziatikak edo dena dela-koak jota nago. Herenegun nahiko proba polita egin-nuen, baina amaituta mindu egin zitzaidan. Aurreko batean besoan jarri zitzaidan, baina pasa zen, eta orain hau. Arrospideren kontrako kanporaketan ere katarroarekin jardun nuen, eta bete egin nintzen azkenera».

Beraz, plazaratzen bada ere, badirudi ez dela sasoi onenean ariko. «Plazaratzen ez banaiz, galduta daukat kanporaketa, eta ez dute atzeratuko. Beraz, ahalegi-nak egingo ditugu», gehitu zuen nafarrak. Berak zioen, egoera normalean parean ariko lirakeela, eta irabazteko moduan ere badela, baina ez zegoen oso animatuta.

Arraunketa ♦**Trainerila estropadak jokatu dira gaur Hondarribian eta Ondarroan***Gipuzkoan beste jardunaldi bat izango da bihar Donostian*

Ramon Basaldua / Bilbo

GIPUZKOA eta Bizkaiko trainerila ligetako estropadak jokatu dira gaur Hondarribian eta Ondarroan. Gipuzkoarrek lehia bikoitza izango dute aste-buruan. Hondarribian 16:30etik aurrera erloju-peko estropadan. Nagusien ligako laugarren jardunaldia izango da eta gazte mailako lehenengoa, batel denboraldia iragan aste-buruan amaitu ondoren. Bihar, Gipuzkoako trainerila ligako beste estropada bat jokatu da, Ur Kirolak taldeak antolatutakoa hain zuzen. Goizeko 11etan hasiko da lehia eta hamabi ontzi onenak txandatan banatuta ariko dira eta gainerakoak erlojupekoan.

Hondarribiako trainerila batek bi garaipen eskuratu ditu eta Oriok beste bat. Bi ontzi hauek dira sailka-peneko buru Donibaneko-ren aurretik.

Urdaibaiko ontziaren lehenengo agerraldia

Bizkaian, itsaso zabalean jokatu da gaurko estropada Ondarroan 16:30etik aurrera. Azpimarratzekoa da Urdaibaiko ontziaren lehenengo agerraldia izango dela gaurkoa. Aurreko denboraldian Urdaibai-traineru estropadetan baino ez zen aritu. Aurten, berriaz, trainerila denboraldian parte hartuko du Bermeo eta Mundakako arraunlariek. Elantxobe Urdaibai proiektuaren barruan badago ere, bere kabuz jarraituko du traineru denboraldira arte.

Lehia gogorra espero da gaurko estropadan. Azken jardunaldian Bermeo aise nagusitu baldin bazen ere, gaur aurkari gogorrak izango baititu, hala nola, Urdaibai, Arkote, Ondarroa, Elantxobe eta Isuntza, besteak beste.